



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko azaroaren 18a

112. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, zeinaren bidez profesionalen erregistroa sortzen baita haurdunaldiaren borondatezko etendura dela-eta. Akats zuzenketa (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Garapenerako Lankidetzari buruzko Lehenengo Plan Zuzendariaren ebaluazio bat aurkez dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakasleentzako laguntza zentroak izan daitezzen maisu-maistren prestakuntzaz arduratuko direnak, eskola-eremuan arreta-defizita eta hiperaktibitatea daukaten ikasleak detektatu eta tratatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gehiago itxaron gabe elkarrizketak has ditzan, NUPen Medikuntzako gradu-ikasketak, bai eta jadanik eskatutako beste titulazio batzuk ere, ezartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Los Arcosko abiadura-zirkuituari buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txostenaren edukia eta balorazio guztiak bere egin ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zzeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baititu Marokoko Gobernuak sahararren aurka egindako indarkeriazko ekintzak, eta sahararrei elkartasuna eta babesa adierazten baitizkie. Osoko Bilkurak berretsia (6. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Ikerketa batzordea sortzeko eskaera, Nafarroako Gobernuak Los Arcosko Nafarroako Zirkuituan funts publikoekin ustez egindako irregulartasunak argitze aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, zeinaren bidez profesionalen erregistroa sortzen baita haurdunaldiaren borondatezko etendura dela-eta

AKATS ZUZENKETA

Akatsak aurkitu dira 2010eko azaroaren 10eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Foru Legearen testuan. Beraz, horiek zuzendu egin dira, horretarako akats-zuzenketa argitaratuz.

– 3.1 artikuluan, honako hau esan ordez:

“1. Kontzientzia-eragozpenaren adierazpena (...) zerbitzuak ematen dituen Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzako titularrari zuzenduko zaio.”

Honakoa esan behar du:

“1. Kontzientzia-eragozpenaren adierazpena (...) zerbitzuak ematen dituen zentroko zuzendaritzako titularrari zuzenduko zaio.”

– 3.4 artikuluan, honako hau esan ordez:

“4. Kontzientzia-eragozpeneko adierazpenak jaso eta (...) Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzako titularrak, langileak zerbitzuak ematen dituenekoak, ofizioz...”

Honakoa esan behar du:

“4. Kontzientzia-eragozpeneko adierazpenak jaso eta (...) langileak zerbitzuak ematen dituen zentroko zuzendaritzako titularrak ofizioz...”

– 3.5 artikuluan, honako hau esan ordez:

“5. Eskaerek ez badituzte (...) Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzak uko egingo dio kasuko inskripzioa egiteari. Ebazpen horren aurka...”

Honakoa esan behar du:

“5. Eskaerek ez badituzte (...) zentroko zuzendaritzak uko egingo dio kasuko inskripzioa egiteari. Ebazpen horren aurka...”

– 5 artikuluan, honako hau esan ordez:

“Erregistro horretan sarbidea izanen dute, beren eskumenen esparruan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaletako Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzako titularrek, eta zuzendaritza medikoetako nahiz erizaintzako zuzendaritzatakoek.”

Honakoa esan behar du:

“Erregistro horretan sarbidea izanen dute, beren eskumenen esparruan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaletako zentroko zuzendaritzako titularrek, zuzendaritza medikoetako nahiz erizaintzako zuzendaritzetako titularrek”.

– Eranskinean, hau esan ordez:

“.....ko Osasun Barrutiko Laguntza Espezializatuko zuzendari kudeatzaile jaun/andrea. Kalea:.....”

Honakoa esan behar du:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaria. Hiria:..... Kalea:.....”

Iruñean, 2010ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nekazaritza Azpiegituri buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko azaroaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Nekazaritza Azpiegituri buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aur-

keztu zuen eta 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko azaroaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko azaroaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko azaroaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Garapenerako Lankidetzari buruzko Lehenengo Plan Zuzendariaren ebaluazio bat aurkez dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko azaroaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Garapenerako Lankidetzari buruzko Lehenengo Plan Zuzendariaren ebaluazio bat aurkez dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez,
Nafarroako Gobernua premiatzen
da Garapenerako Lankidetzari
buruzko Lehenengo Plan Zuzendari-
aren ebaluazio bat aurkez dezan.**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2011ko lehen hiruhilekoan

zehar legebiltzar honetan aurkez dezan Garapenerako Lankidetzako Lehen Plan Zuzendariari buruzko ebaluazio bat.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2011ko lehen hiruhilekoaren barruan aurkez dezan Garapenerako Lankidetzako Bigarren Plan Zuzendaria.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio zenbait neurri aurkez ditzan –besteak beste, langile gehiago kontratazea–, proiektuen ebaluazioa egitean pilaketak ekidite aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak erakunde publikoei eta GKE-ei eskatzen die kalkulua egiteko irizpideak bateratzera jo dezaten, erreferentziako formula bakarra definituz, Lehen Plan Zuzendariaren eta Pobreziaren aurkako Itunean garapenerako laguntzarako ezarritako kalkulu-irizpidetik abiatuta.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakasleentzako laguntza zentroak izan daitezen maisu-maistren prestakuntzaz arduratuko direnak, eskola-eremuan arreta-defizita eta hiperaktibitatea daukaten ikasleak detektatu eta tratatzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko azaroaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakasleentzako laguntza zentroak izan daitezen maisu-maistren prestakuntzaz arduratuko direnak, eskola-eremuan arreta-defizita eta hiperaktibitatea daukaten ikasleak detektatu eta tratatzeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakasleentzako laguntza zentroak izan daitezen maisu-maistren prestakuntzaz arduratuko direnak, eskola-eremuan arreta-defizita eta hiperaktibitatea daukaten ikasleak detektatu eta tratatzeko.

• Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakasleentzako laguntza zentroak izan daitezen maisu-maistren prestakuntzaz arduratuko direnak, eskola-eremuan arreta-defizita eta hiperaktibitatea daukaten ikasleak detektatu eta tratatzeko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gehiago itxaron gabe elkarrizketak has ditzan, NUPen Medikuntzako gradu-ikasketak, bai eta jadanik eskatutako beste titulazio batzuk ere, ezartzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko azaroaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gehiago itxaron gabe elkarrizketak has ditzan, NUPen Medikuntzako gradu-ikasketak, bai eta jadanik eskatutako beste titulazio batzuk ere, ezartzeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gehiago itxaron gabe elkarrizketak has ditzan, NUPen Medikuntzako gradu-ikasketak, bai eta jadanik eskatutako beste titulazio batzuk ere, ezartzeko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du luzamendutan ibili gabe has ditzan elkarrizketak, NUPen medikuntzako gradu-ikasketak, bai eta jada eskatutako beste batzuk eta aipatu unibertsiteatearen garapenerako egokitzat jotzen diren bestelako titulazio batzuk ere, ezartzeko prozesua abiarazte aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Los Arcosko abiadura-zirkuituari buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txostenaren edukia eta balorazio guztiak bere egin ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko azaroaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Los Arcosko abiadura-zirkuituari buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txostenaren edukia eta balorazio guztiak bere egin ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Los Arcosko abiadura-zirkuituari buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txostenaren edukia eta balorazio guztiak bere egin ditzan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Los Arcosko abiadura-zirkuituari buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txostenaren edukia eta balorazio guztiak bere egin ditzan, bere eguneroko jardunean nahiz gisa horretako jarduketa guztietan irizpide horiek barnera ditzan, aldatu beharreko legeak eta arauak aldatzeari ekin diezaion, eta aipatu abiadura-zirkuiturako kudeaketa-plan estrategikoa taxutu dezan.

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baititu Marokoko Gobernuak sahararren aurka egindako indarkeriazko ekintzak, eta sahararrei elkartasuna eta babesa adierazten baitizkie.

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko azaroaren 11n eginiko Osoko Bilkuran, adierazpen instituzional hau berretsi zuen: "Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baititu Marokoko Gobernuak sahararren aurka egindako indarkeriazko ekintzak, eta sahararrei elkartasuna eta babesa adierazten baitizkie".

Erabaki hau argitaratzen da Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 112.1. artikulua ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ikerketa batzordea sortzeko eskaera, Nafarroako Gobernuak Los Arcosko Nafarroako Zirkuituan funts publikoekin ustez egindako irregulartasunak argitze aldera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Ezker Batua Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ikerketa batzorde bat sortzeko eskaera aurkeztu zuten, Nafarroako Gobernuak Los Arcosko Nafarroako Zirkuituan funts publikoekin ustez egindako irregulartasunak argitze aldera. Nafarroako Parlamentuak, 2010eko azaroaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako eskaera baztertzea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda
